

Marchais eta gu

Zeruko Argia, 676. zk., 1976-02-22: 5.

Jakin berria dugunez, lehen Frantzian langileen diktadura ezartzeko bide bila zebiltzen komunista prantzesek, kolpetik mendebaleko demokrazibidea artu dute.

Eta *komunismo prantzesa* onartu.

Aurretik Italiarrak berea bezala.

Eta hemen sorginak: Stalin denboran, Aliatuen bizkar rusoez alemandarrekin egin zuten paktoa, eta gero Pragan eta bestetan gertatutakoa, eta Portugal-en oraintsu ikusi-berri-berria duguna.

Sorginak noiz nahi eta non nahi eta nola nahi agertzen bait dira.

Amabirjina baino maizago.

Ilunpeko sorginkeri hoiek ezker-eskuinekoak izan ohi dira, eta gure erriak Astigarribia-ren *saga* ixtori urbilekoa dugunez, ez dut uste bide hontako agintekeriarik ere nahi duenik. Ez eskuineko joaten asi-berria den hau, ez ezkerreko. Batetik, klase-borroka eta Estaduaren kapitalismoa edo jauntxoan eta kapitalisten zanpaketa dakartelako, eta, bestetik, biak totalitarioak direnez, erriari materialeko eta espirituko molde itxi-estulotu eta kateatu bat ezarri nahi diotelako.

Betoz, bai, alderdi *guziak* argira.

Bakoitzak erakutsi beharko bait du joku garbiko giro batean erriak nondik nora joan nahi duen eta *euskal komunismo* batera joateko zer bide ibili nahi dituen.

Gure Marchais euskalduna nor den, zer dion eta zer neurritan sinesgarri den jakingo dugu orduan.